

LEIZARRAGAREN IDAZLANETAN BARNERATZEN

**0.– Kalbindarren erlijio-erreformatzailearen jaiotza-
ren 500. urteurrena** ospatzen ari den honetan¹, aukera ezin hobea aurkezten zaigu Jean Calvinen garaikide² eta erlijio-kide zen Leizarragaren bitartez iritsi zitzaizkigun idazlan erreformistak zoko ilunetik atera, mahaigaineratu eta ezagutzen hasteko. Lekukotasun historiko-erlijiosoaz gainera, Leizarragaren obrak, aurrerago ikusiko den bezala, hamaika opari interesgarri eskaintzen baitizkio gaur egungo irakurleari ere.

Irakur bitez ondoko lerrook, bada, beskoiztarrak itzuli-egokitu-moldatu zituen obretan barneratu ahal izateko gida modura.

1.– Ilun samarra dugu oraindik Joanes Leizarragaren irudia, izan ere, ez baita asko hartaz eta haren ingurukoez dakiguna. Gure literatura klasikoko beste hainbat autorerekin gertatu bezala, Leizarragak ere ezezagun samar izaten segitzen du.

¹ Ikus, esaterako, <http://www.calvin09.org/FR/home/accueil.html>.

² 1506aren inguruan kokatu ohi da Leizarragaren jaioturtea. Calvinena hiru urte beranduago, 1509ko uztailearen 10ean.

Beskoitzen jaio eta apaiz -nola esan?– erromatarra³ izate-
ra iritsi zela besterik ez digu jakinarazi Leizarragaren bizi-
tzaren lehen erdialdeari buruzko datu gabezia horrek. Uga-
riagoak izan arren, ez dira askoz argigarriagoak ondoko ur-
teetako albisteak ere, gehienak haren obretatik eta
Bearnoko Sinodoen eskuizkribuetatik etorriak baitira.

Badakigu, halere, 1559an, Nafarroako erregina zen Joa-
na Albretekoak bere erresuma kristautasunaren eremuetatik
ateratzen ez zen fede kalbindarrean barneratzea erabakita-
koan, bidaide leiala aurkitu zuela beskoiztarrarengan. Ala-
baina, 1567ra arte ez zuten Eliza berriko Ministro⁴ bilakatu.
Lan pastoralera, ezaguna da, Nafarroa Behereko Bastidan bu-
ruru zuten. Hil ere, bertan hil bide zen XVII. mendearen
lehen urtean.

Guztiarekin ere, Joanes Leizarragaren eginkizuna ohiko
Ministroena baina harantzago iritsi zelako dugu egun eza-
gun, izan ere, berari bizkarreratu baitzitzaion erlijio errefor-

³ Berariaz baztertzen dugu geroago Erromako Elizak monopolizatuko
zuen “katoliko” kalifikatiboa. Idazkietan agertu bezala, garai hartako
kalbindarrek katolikotzat zuten beren burua, “Eliça saindu catholi-
coa” edo “universal” delakoan sinesten baitzuten. *Katexismean* de-
klaritzen den bezala, “Cer erran nahi da, Catholicoa, edo universal?”
galderari honela erantzuten zaio: “Hitz haur da guri aditzera emait-
eco, ecen nola ezpaita fidelén burubat baicen, hala guciac gorputzbat
eguin behar diradela, halaco maneraz non ezpaitirade anhitz Eliça,
baina bat, mundu orotara hedatua” (Leizarraga 1571: 1990, 1308; au-
rrerantzean, beskoiztarraren obren aipamenak Linschmann eta
Schuchardt-en 1990eko edizioaren bitartez eskainiko dira, betiere
Leizarraga izena bakarrik aitatuz eta bildumak daraman orri-zenbake-
ta orokorraz baliaturik).

⁴ “Eliçaco Pastora edo Ministrea da, legitimoqui eta bidezqui deithu
içanic Eliçaren cargua duena, hartan Iaincoaren hitza eguiatzqui de-
clara eta Sacramenduac administra ditzançat, eta hura Iaincoac manu
beçala eta haren officioac emaiten duen beçala, guida eta goberna
deçançat” (*Chistino batec iaquiteco dituen punctu principalén defini-
tioneac eta descriptioneac* atala, in *Abc edo Chistinoen instructioneac*,
Rochellan, Pierre Hautin, 1571; Leizarraga 1433-1434).

matuaren testu fundatzaileak eta propagandazkoak euskaratzeko ardura.

Ofizialki, Pauen 1563an burutu sinodoan luzatu zitzaion agindua. Handik bi urtera Oloroeko sinodoko agirietan azalzen denaren arabera, Leizarragak burutua edo burutzear zuen *Testamentu Berriaren* itzulpena, lanaren ikuskari-zuzentzaileak izendatu baitzizkioten: Joanes Etxeberri lapurtarra eta zuberotar bide ziren Piarres Landetxeberry, Sanz Tartas eta Tardets izenekoak.

Testamentu Berriaz gainera⁵, erlijio berriarentzat itzulitako testu fundatzaileak, oro har, hautatutako fedearen printzipioen aitopenera eta katixima, egutegi xume eta otoitz batzuetara mugatzen ziren. Testuok, adierazi beharrik ez da, fede berriko aitzindari zen Jean Kalbinek sortu edota berrikusitako oinarrizkoenak baino ez ziren.

Oroitu behar da, edonola ere, kalbindarrek euskal munduan burutu asmo zuten ahalegin “literario” hura testuinguru arras gatazkatsu baten barnean zetorrela bildurik, hots, edozein inperiok baino iraupen eta aginte luzeagoak eta irmoagoak izanak zituen Eliza erromatarrarekiko hausturak sorrarazi perspektiba ideologikoki zein sozio-politikoki iraultzaile baten muinean.

Urte gutxitan, Luteroren eskutik hasitako erlijio-erreformak mendebaldeko Europaren bipolarizatzea ekarri zuen, lurrikara haren eraginak arlo eta gizarte-geruza guztietan sentitu zirelarik. Erromako Elizaren ondasunen desjabetzea, hango elizburuaren subiranotasunaren ukazioa, hierarkia-aren aurkako planteamendua, ordena erlijiosoaren deuseztapena, ikonoen kultu-ezabaketa, sakramentu zenbaiten aldatzea, apaizen zelibatoaren kontrako jarrera, etab., “suz

⁵ *TB* aurrerantzean. Orobat: *Abc* (*Abc* edo *Kristinoen instrukzioea*), *Kl* (*Kalendrea*), *Kn* (*Konfesioea*), *Kt* (*Katexisimea*), *O* (*Otoitz* ekle-siastikoen forma).

eta marreçanez”⁶ (Leizarraga, 1356), odolez eta heriotzaz nahasirik etorri ziren efektuak izan ziren.

Historian barrena Erromako Elizak ustez burututako doktrina-desbideraketaren aurrean eta, aldi berean, barne-erlijioaren garrantzia azpimarratzean, egitamu erreformistak Jainkoaren mezua jasotzen omen duen liburura itzultzea proposatuko zuen, lehenago haren itzultze-akatsak eta zuzendu behar baziren ere. *Bibliara* bueltatzeak, jakina, sinestunek berori zuzenean irakurtzeko aukera eskaini behar zuen ezinbestean. Kristautasunaren fundazio-liburuak irakurle gehienentzat erabat irakurtezin egiten zituen hizkuntza ofiziala –latina, alegia– alboraturik, tokian tokiko hizkuntzetara itzultzen hasi ziren.

Letra idatzien esparruan, bada, ugaltze eskerga izan zuten mendebaldeko hizkuntzek, euskara bezala ordura arte usatu gabeak barne. Erantsi behar da liburu sakratuekin batera bestelako liburuak ere argitaratu zirela, erlijioso-didaktikoak betiere. Horien guztien euskaratzea izan zen Leizarragari eta haren lankide gisakoei⁷– egotzi zitzaion zeregina.

2.– Maiz transmititu izan da hirutara biltzen direla Leizarragaren idazlanak, hiru gitalpenen izenburuek⁸ (*Jesus Ch-*

⁶ *Orotariko Euskal Hiztegia*n pasarte honen itzulpenik ematen ez bada ere, jatorrizko bertsiok aski uzten du esanahia: “à lieu des feus et glaives dont on a usé parci-devant”, hots, “instead of the fire and sword” (gurea da bertsiok bietako letrakera etzana). “Suz eta *ezpataz*”, alegia.

⁷ Ez da ironia-puntturik gabekoa Leizarragak *TB*ren hasieran *Reginari* zuzentzen dion gutunean tartekatzen duen parentesikoa: “[...] bayeta sperañaz ecen ni baino sufficientagoric-ere içanen cela obrán escu eduquiren luenic (nola eriden-ere içan baita Bearnoco synodoaren ordenañaz lan eguina visitatu eta coneritu behar içan denean)” (Leizarraga, 252).

⁸ Idazlanen lehendabiziko erreferentziak jatorrizko grafiarekin emanago diren arren, irakurketa errazteko, egungo ortografia erabiltzera joko da hurrengoetan.

rist Gure Jaunaren Testamentu Berria, Kalendrerera eta Abc edo Christinoen instructionea, guztiak 1571n, gotorleku protestante ospetsua zen Arroxelan kaleratuak) barnean dagoen guztia erakutsiko bailuten. Beherago ikusiko den bezala, nabarmendu behar da inguruko hizkuntzetan liburu-funtzionamendua izan zuten beste hiru idazlan daudela “ezkutaturik” TBren eranskin modura, hots, *Confessionea, Catechisme*a eta *Othoitz*a *ecclesiasticoen forma* izenekoak⁹. Guztiak, esan beharrik ez da, garrantzi handikoak kalbindar fedeari dagokionez.

Translazioetan usatu gabeko hizkuntza izateak gaineratu zituen eragozpenak alboraturik ere, begi bistakoa da lan guztiak direla arreta handiz landuak eta burutuak, eta edizioak ere biziki zainduak. Horrezaz landa, Nafarroako erresumak enkargatuak eta ordainduak izanak ere Iparraldeko mugak gainditze-rainoko oihartzuna eman zien argitarapenei. Montaigne, Vulcanius, de Thou eta beste zenbait egile entzutetsuren hitzak lekuko.

Luze leramake, bestalde, Leizarragaren idazlanen artean nolabaiteko sailkapenak egiten hasteak. Izan ere, garrantzia dela eta, taxuzko *ranking* batean TB agertu behar bada lehendabizi (ustezko Jainko egiazkoaren hitza jasotzen eta helarazten baitio irakurleari), bigarren tokian erlijioaren oinarritzko puntuak adierazten dituen egitamua jarri behar da, zalantzarik gabe. Zailago litzateke, ziurrenik, propaganda eta pedagogia sistema-rekin lotuta dauden obrak mailakatzea.

Are eginkizun gaitzago lekarke, baina, sormenaren eta itzul-tzaile-senaren arteko desberdintasunak finkatu nahi izateak, nahiz eta aski bide dugun itzulpena dena Leizarragak sortuta-

⁹ Liburuxka haien kaleratzeko moduaz mintzo dira, esaterako, frantsesezko bertsiio desberdinak. 1562ko *Confession de foy* delako batean, adibidez, *Fede-konfesioa, Otoitza eklesiastikoen forma, Katexima, Haurren interrogatzeko manera* (ez oraindik erabat landua) eta *Abcko* hainbat otoitz, batera, argitalpen berean alegia, kaleratu ziren (ikus <http://gallica.bnf.fr/ark:/12148/bpt6k114552j.image.f204.langFR>).

ko gutxitxotik bereizten hasteko. Edonola ere, interesaren aldetik, oraindik zabalik dirauen arlo bat ukituko luke horrek, hots, itzulpenetarako erabili zituen ereduez diharduena. Baina geroago helduko diogu gai honi.

Egiletzaz den bezainbatean, esate baterako, agerian dago testu batzuk aratz samarrak diren bitartean, beste batzuk eztabaidarako aitzakia eskaintzen jarraitzen dutela. Ildo horretatik, begi bistan da batzuk Leizarragaren gogotik sortuak direla eta hark nahi izan zuenaren arabera idatziak, eta beste batzuk, aldiz, nabarmenkiro itzulpen huts direla (Leizarragaren orrialderik gehienak, sarritan esan den bezala). Alabaina, maiz-maizik, hainbeste eta hainbeste orri itzuliren artean testuen albo-irakurle gizagaixoari ezkutaturik geratu ohi zaio egon badagoen benetako inspirazio-etorria.

Agian horrexegatik, usu ez dago hain garbi noraino izan diren orrialde zenbait Leizarragaren senaren zelaietan alatuak eta noraino bestelakoen larreetan elikatuak. Bada, beraz, honetan zer argiturik, oraindik orain beskoiztarrak berak sortuak bailiren aurkezten baitzaizkigu besterenak diren hainbat idazki.

Zailtasunak zailtasun, hona gure beskoiztarrak sortu eta itzuli idazlanak:

Testamentu Berria

TBren inprimaketa¹⁰ 1571ko irailaren 24an burutu zen, Leizarragak berak dioskunez¹¹. Hortaz, bost laguneren artean bospasei urte eman zituzten kaleratze-premia larria zuen bertsioa zuzentzen eta inprimaketa lana prestatzen. Gertaera estonagarria, zeren Leizarragaren behin-behineko euskaratze-lanak, antza de-

¹⁰ *Testamentu Berriaren* bertsio elektronikoa ondoko helbide honetan kontsulta daiteke: <http://klasikoak.armiarma.com/idazlanak/L/LeizarragaTesta.htm>

¹¹ “Egun hunequin Testamentu berria Heuscaraz lehenic imprimitzen acabatu” zela dio beskoiztarrak *Kalendreran* (Leizarraga, 1387).

nez, pare bat urte besterik ez baitzuen iraun, 1563tik 1565era, hain zuzen. Bestelakorik kendu gabe, jakina, inprimatze-atzerapen horren arrazoia argiago gera liteke, baldin Arroxelako Hautin¹² editorea baino lehenago Genevako Jean Bonne-foy izan balitz aukeratua¹³. Argitalpenaren luzatze-atzeratzeak hobe uler litezke, bada, tartean liburuen edizioa Genevatik Arroxelara aldatzeko beharra suma baledi. Eta Bonne-foyren izena ekartzen badugu, ez da kasualitatez edota apeta hutsez, beste arrazoi sakonago bategatik baizik. Jean Bonne-foy, izatez, Kalbinek sakon berrikusia zuen eta, geroztik, kalbindarrek ofizialtzat hartu zuten frantseseko *Le Nouveau Testament* delakoaren¹⁴ argitaratzailea izan zen Genevan –gutxienez– 1563an¹⁵, hain zuzen ere, Leizarragari *TB* itzultzeko agindua eman zitzaion urtean bertan.

Harrigarriro, eta arrazoi ageririk ez den arren, *TB*ren banaketari ere hiru urte beranduago ekin omen zitzaion, 1574ko

¹² Pierre Hau(Dtin Lyon en egona zen editore gisa 1560tik 1565era bitartean. Gero, nonbait Nafarroako Joana Albret erreginak erakarria, Arroxelan aritu zen 1570etik 1588ra. Inprimatu zituen lehen lanak Leizarragarenak izan ziren. Beste toki batean erakutsi genuen bezala (Salaberri 2008, 96-hk), 1572ko ekainean bi prentsa eta hainbat tipo saldu zizkion aurrerantzean kontrarreformaren inprimatzaile garrantzitsua izango zen G. Millanges-en aita Simon-i.

¹³ 1565eko Oloroeko sinodoaren eskuizkribuak kontsultatzeko aukera ezak Lacomberen transkribapenez fidatzeraz garrantzitsua izango zen G. Millanges-en aita Simon-i.

¹⁴ *NT* aurrerantzean.

¹⁵ Besterik ezean (Lafonek guk ezagutzen ez dugun baina oso antzekoa dirudien beste edizio bat aipatzen du, 1562koa), *TB*ren itzulpenarako erabili erreferentzia nagusiaren ildoko ediziotzat har litekeen *NT* honek 1559an sinatua du hitzaurre gisakoa.

abenduaren 15ean. Orduko Paueko Sinodoak honako erabaki hau utzi zuen idatzita: “... Les Nouveaux Testaments en Langue Basque seront distribués par Les Colloques, en rendront compte au Synode prochain” (Lacombe 1931, 365-366).

Nolanahi ere den, eta liburuaren ediziora itzuliz, diogun lehendabizi asko direla *Testamentu Berria* izendapenaren birtartez ezagutzen den argitalpena osatzen duten atalak, eta ez guztiak maila berekoak, ez bederen garrantziari eta sorkuntz-mailari dagokienez. Eta ***Testamentu Berria*** bera da lehendabizikoa garrantzian eta tamainan, eta, jatorrizko ereduak bilatzerakoan, arazo gehien ematen segitzen duena; ez dago horretan zer duda.

Baina erabateko frogan faltan bada ere, bidezko dirudi Leizarragaren eredu nagusia Kalbinek eta De Beze-k berrikusi eta zuzendutako *Le Nouveau Testament* (Geneva, 1563) delakoa (edo edizio aberats hartatik oso urruti ez zegoen bertsio bat) izan zela pentsatzeak¹⁶. Besteak beste, gorago aipatu diren erredakzio-datekin bat datorrelako eta egituraketa, adibideak eta bestelakoak ezin hurbilago daudelako¹⁷.

¹⁶ Artikulu honetan 1563ko edizio horretatik aterako dira Leizarragaren itzulpenak eta adibideak erkatzeko pasarteak. Frantziako Liburutegi Nazionaleko helbide honetan kontsulta daiteke: <http://gallica.bnf.fr/ark:/12148/bpt6k108678p.r=calvin%2C+jean.langFR>.

¹⁷ Jean Tournes-ek 1561ean Lyonon kaleratu zuen *Bible* delakoan, bigarren parteko *NT*ko testuen alboetan dauden ohar biblikoak Leizarragarenak bezalakoak dira, inolako komentariorik gabeak. Halere, kapituluaren hasierako laburpenek ez dute zerikusirik. Hori bai, hasieran ez da falta liburuen izenen koadroa (1563ko *NT*an ez bezala, honetan Leizarragak egiten duen bereizketa egiten da epistolen atalean: “Epistres de S. Paul” eta “Epistres catholiques”), ez eta beskoiztarrak amaieran ematen duen izen propioen zerrenda ere. Amaierako “Recueil d’aucuns mots & manieres de parler difficiles du nouveau Testament avec leur declaration” atala ere Leizarragarena bezalakoa da. Ondoko helbide elektroniko honetan ikus daiteke: <http://gallica.bnf.fr/ark:/12148/bpt6k53622p.image.f1.pagination.langFR>.

TB bezala ezagutzen dugun liburuaren antolamenduari dagokionez, Nafarroako erreginari eskaintzen zaion **“Gucizco Andre noble Ioanna Albrete...”** gutunak irekitzen du idazlana (bai frantsesez eta bai euskaraz erredaktatua)¹⁸ eta **“Heuscalduney”** zuzendutako aitzinsolas laburra¹⁹ dator ondoren, bi-biak Leizarragak (Leizarragak berak) idatziak. Testu zehatzak dira, egileari eta hark hartutako eginkizunaren inguruabarrei buruz hitz egiteaz gain, Euskal Herriaz eta euskararen egoeraz ere mintzo direnak, sinatzaileak baino ezin idatz zitzakeenak.

Leizarragarenak²⁰ dira, orobat, *TB* beraren amaieran dagoen **“Çuberoaco herrian usançatan ezdiraden hitz bakoitz bazu hango ançora itzuliac”** izeneko lexiko-taula laburra²¹ eta bertan tartekatutako ohar gramatikalak²².

Gainontzeko idazkiak kalbindar elizak agintzen zuenari segituz burutu ziren, inoizka baten baten barnean hizkuntz jolas

¹⁸ “Gucizco Andre noble Ioanna Albrete Naffarroaco Reguina Bearnoco Andre guehién &c, denari, bere cerbitzari gucizco chipiac eta gucizco obedientac, Ioannes Leizarraga Berascoizcoac, Iesus Christen gratiá eta baquea desiratzen” (Leizarraga, 249-253; frantsesez: Leizarraga, 243-248).

¹⁹ *Idem*, 254.

²⁰ Leizarragarenak direla baieztatzean, haren zuzendaritzapeko lantaldearenak direla esan nahi dugu, testuen iradokitzaile edota egile besoikoiztarra edo lankideak izan ziren jakiteko modurik ez baitago.

²¹ Leizarraga, 1213-1214.

²² Lexikoa dela eta, zalantza egingo genuke atal horretan agertzen den hitz bat ez ote zen tokiz kanpo suertatu, nahiz horretan bertan paratua geratu zen beste atal desberdinen egitura zurrinak behartuta. “Pescadore, *arrançale*” hitzaz ari gara, eta, izatez, nekez tarteka zitezkeen hebraierazko eta grezierazko hitzen artean, eta, bestalde, ez bide zen hitz *difficilen* zerrendan kokatzeko modukoa, besteak beste, atal hau *TB*rekin emana eta berrikuntzei itxia zetorrelako Genevetik. Honela definitu zuen Leizarragak, atal berezia beharko zukeen testua: “Pescadore, *arrançale*. Guehienci lekuetan arrançale erraitenagatic, heuscaldun anhitzi, ma. 4. 19 eta marc. 1. 17. Nic eguinen çaituztet guiça pescadore hobequi itzeuquiz, ecen-ez. Nic eguinen çaituztet guiçarrançale: hala usatu ukan dugu” (*Idem*, 1214).

pertsonalerako ate txikiren bat irekirik suertatu bazen ere. **“Testamentu Berrico hitz eta minçatzeco manera difficil bakoitz batzu bere declarationéquin”** atalean²³, esaterako, Leizarragak egokitzen interesgarri zenbait utzi zizkigun²⁴.

Gainerako guztia, esan bezala, inoren testuen itzulpen her-tsi samarra izan zen, *Testamentu Berria* delakorako erabiliko ziren irizpide estuaren arabera burutua²⁵. Ildo horretatik, *TB*ren aurretik dagoen hirugarren idazkiak, **“Batbederac iaquiteco,**

²³ *Idem*, 1201-1213.

²⁴ *Guertha cedin* eta *Guertha ezdadila* sarrera propioak kenduta, eta hitzen bat alboratuta (ez dira itzultzen *cervoise, circoncision, doig de Dieu, parole, peagers, phylactere, vipere...*), beste guztiak frantsesezko bertsioa itzuli edo egokitzen dute. *Anaye (Frere)* hitzaren egokitzenean, esaterako, frantsesezko “en langue Hebraique se prend pour tout parent en quelque degré que ce soit” soila honela osatzen da: “deitzen dirade Hebraicoz, ez haourride diradenac solament, baina ahaide guciac-ere: eta generalqui hartzen denean, erran nahi da hambat anaye nola arreba, eta ez mundu hunetaco, aita-amén respectuz, baina Iaincoaren respectuz” (*Idem*, 1201). Interesgarria da, halaber, *Legionea* hitzarekin egiten den egokitzena, frantsesez “une bande de gendarmes quei contenoit ordinairement cinq mille hommes de pied, & cinq cens de cheval...” agertzen den bitartean, Leizarragak areagotu egiten baitu soldadu-kopurua: “cen gendarmesezko banda bat, ordinarioqui hamar milla oinezcoren eta borz ehun çamarizcoren contucoric...”. Orobat, jatorrizko *Denier* (“estoit une espece de monnoye, de la valeur de trois sols six deniers de France...”) honela agertzen da *Dineroa* sarreran: “cen moneta mota bat hamalaur ardit Franciacoric valio cituenic...” (*Idem*, 1204). Hizkeren aberastasunaren lekukotasunaren aldetik, ezaguna da *Sabbathoa*-ri egiten dion iruzkina, jatorrizko testua (“Or c'estoit le septième & dernier iour de la sepmaine, que nous appelons maintenat Samedi”) honela ematen baitu beskoiztarrak: “Eta hura cen asteco çazpigarren eta azquen eguna, orain batéc larambate, bercec eguiacoitz eta ber-céc nesquen egun deitzen duguna” (*Idem* 1211).

²⁵ “Haur bay erranen dut, ecen bethi orhoitic nola Iaincoaren manu expressa den haren hitzari deus edequi eztaquion ez eratchequi: hala eguin ahal dudan fidelquiena eguin ukan dudala” (Joana Albrete erreginari zuzendutako gutunean; *Idem*, 253).

eta maiz iracurtzeco duen Advertimendua nola Iesus Christ den Iaincoaren Leguearen fina, eta gure salvatzeco moien bakoitza” izenekoak (Leizarraga, 255-273), Jean Kalbin du egile²⁶.

Antzeko zerbait esan liteke haren ondoan erantsia den **“Testamentu Çaharrac eta berriac iracasten draucuten guciaren sommarioa”** delakoaz ere (Leizarraga, 274-279). Frantses edizioetan egile-izenik ez duen “La somme de tout ce que nous enseigne le Vieil et Nouveau Testament” hau obraren hasieran²⁷ kokatua kaleratu ohi zen edo, bestela, amaieran, “Table des matieres” delakoaren aurretik hain preseski. Leizarragak hitzez hitz euskaraturik eskaintzen du lehena, baina ez bigarrena, izan ere, **“Testamentu Berrico materien erideiteco Taulá”** delako hau ezinbestean behar baitzen egokitu, euskarazko hitzen arabera moldatuko bazen. Egokitzapenerako irizpideak hiztegegintzakoen pareko ditugu: bateratu egiten dira frantsesezko bertsioan sarrera desberdinetan ematen diren hainbat hitz, bereizten beste zenbait, etab.

“Testamentu Berrian diraden icen propri Hebraico eta Greco batzuen declarationea” izeneko taula ere (Leizarraga, 1198-1200) ohiko bilakatu zen. Haren eredukoa dakar, esaterako, aipatu berri dugun P. Michel inprimatzaileak 1566an argitaratutako *Bibliak*: “Interpretation des noms propres Hebreux,

²⁶ Frantsesezko bertsioetan izenburua laburrago eman ohi da (“Declaration comment Iesus Christ est la fin de la Loy”).

²⁷ Ikus, esaterako, *La Sainte Bible contenant le Vieil et Nouveau Testament...*, P. Michel – L. Clemensin, Lyon, 1566, (lehen liburukian, 8-9 or.). Lehen liburua: <http://gallica.bnf.fr/ark:/12148/bpt6k79025x.r=.langFR>, eta bigarrena (*NT* barruan darama): <http://gallica.bnf.fr/ark:/12148/bpt6k790268.r=.langFR>. Orobat, François Estienne-k 1567an Genevan argitaratutako *Biblian*: <http://gallica.bnf.fr/ark:/12148/bpt6k53627d.image.langFR.f166.pagination>, eta Perrin-ek urte berean hiri berean kaleratutakoan: <http://gallica.bnf.fr/ark:/12148/bpt6k536231.image.langFR.f1109.pagination>.

Chaldeens & Grecs... en la Bible”²⁸ (ikus 2. liburukia). Leizarragarena, jakina, laburragoa eta *TB*ko testuaren arabera taxutua da.

Konfesionea

Ahaztu egin ohi da normalean kalbindarrek beren tesi erlijiosoak finkatzeko eta jakinarazteko premiak honako idazki larri, zehatz eta berezi hau izan zuela ondorio nagusi.

“Arroxelako Fede-Konfessioa” ere deitua (1559)²⁹ eta Jean Kalbinek berak idatzia, *Jesus Christ gure launaren Evangelioa doctrina puraren araura vicitzeco desira duten Franceséc consentimendu commun batez berén fedeaz eguin duten confesionea* izeneko dokumentu honek kalbindar fedearen gako erlijioso-ideologikoak xehetzen ditu berrogei ataletan³⁰.

Egia esan, Leizarragaren argitalpenetan *Testamentu Berria*ren azkenengo orrietan kokaturik egoteak ez du gehiegi lagundu egungo irakurle euskalduna idazkiak duen balioaz ohar dadin. Linschmann eta Schuchardten edizioan, gainera, desitxuratuago geratu izan da *Konfesionea*, azala eta lehenengo bi orrialdeak *Abc...* delakoaren bukaerara desplazatzean³¹, idazkiak zeukan garrantzia zeharo lausoturik geratu baita.

²⁸ Ikus P. Michel – L. Clemensin-en 2. liburukian. Orobat, Perrin-en *Biblian*: <http://gallica.bnf.fr/ark:/12148/bpt6k536231.image.langFR.f1104.pagination>.

²⁹ 1561ean argitaratutako bertsoetako bat Frantziako Biblioteka Nazionaleko helbide honetan kontsulta daiteke: <http://gallica.bnf.fr/ark:/12148/bpt6k793530.image.f1.langFR>. Bertsioguneratuetako bat: http://www.histoirepassion.eu/spip.php?article1271#outil_sommaire_2.

³⁰ Bertsioguneratuetako bat: <http://klasikoak.armiarma.com/idazlanak/L/LeizarragaKonfesionea.htm>

³¹ Bistan da edizio horretako 1439-1440 orrialdeak (hots, liburuxkaren izenburua eta “Advertimendua”) 1354 eta 1355 orrialdeen artean kokatuta argitaratu beharko lirakeela.

Bestalde, eta inoiz besterik aditzera eman bada ere (Rodríguez Miñambres, 1995), haren aurretik dagoen **“Regueri eguin içan çayon supplicatione bat”** izeneko gutuna ez da Leizarragak idatzia. Kalbinen ekimenez sortua, exordio gisako hori Théodore de Bèze izeneko teologoak erredaktatua zen. Beskoiztarraren taldeak euskaratu baino ez zuen egin.

Katexismea

TBren amaiera aldean erantsia ezagutu dugu euskaldunok (Linschmann eta Schuchardtek argitaratutako edizioan, esan nahi baita) Kalbinek liburu desberdin gisara kaleratutako *Catechisme. C'est a dire, le formulaire d'instruire les enfans en la Chrestienté, faict en maniere de dialogue, ou le Ministre interroge, & l'Enfant respond* (Geneve, Iehan Crespín, 1552) liburuaren³² itzulpena³³.

Frantsesezko edizioan 127 orrialde inprimatu dituen liburu honek ***Catechismea, cein erran nahi baita, Iesus Christen doctrinán haourrén iracasteco formá, non Ministreac interrogatzen baitu, eta haourrac ihardesten*** izenekoan azaltzen ez diren bi orrialdeko “Epistre au lecteur” delako bat du hasieran, eta, 116. orrialdetik aurrera, *Abcren* euskarazko bertsioan agertzen diren hainbat otoitz³⁴ eta hango katixima itxurako “interrogatzeko manera” llaburra bera³⁵.

³² Honako helbidean: <http://gallica.bnf.fr/ark:/12148/bpt6k531151.image.r=calvin%2C+jean.f2.langFR>.

³³ Euskarazko bertsio elektronikoa ondoko helbidean kontsulta daiteke: <http://klasikoak.armiarma.com/idazlanak/L/LeizarragaKateximea.htm>.

³⁴ “Goiceko orationea”, “Lectioearen studiatzeracoan erraiteco orationea”, “Ian aitzineko ohoitzá” (sic), “Ian ondoco ohoitzá” eta”Arratseco orationea”.

³⁵ Bonnefoy-k kaleratutako *Les Pseaumes mi sen rime françoise par Clement Marot & Theodore de Beze* (1563, l.g.) lanari erantsita agertzen da, orobat, *Catechisme* delakoa, *La forme des prières ecclesiastiques...* eta Leizarragaren *ABCn* ere agertzen diren otoitz zenbaiten ondoren (ikus <http://gallica.bnf.fr/ark:/12148/bpt6k1086792.r=.langFR>).

Otoitza eklesiastikoen forma

Katexismea bezalatsu, TBren akaberan kokaturik kaleratu zen gure artean Kalbinek liburuxka bezala plazaratutako *La forme des prieres Ecclesiastiques: avec la maniere d'administrer les Sacremens, & celebrer le mariage, & la visitation des malades* (l.g., 1552)³⁶ liburutxoaren itzulpena. Frantsesezko bertsioa euskarazkora igaro ez den hiru orrialdeko otoitz batez amaitzen bada ere, Leizarragaren ***Othoitzza eklesiastikoen forma: Sacramenduén administratzeco eta Ezconçaren celebratzeco, bay eta erién visitatzeco manerarequin*** bertsioa³⁷ guztiz bat dator frantsesezko ereduarekin.

ABC edo Kristinoen instrukzioea

Arazotsua izan da betidanik *ABC edo Christinoen instructio-nea othoitzz eguîteco formarequin* liburuttoa³⁸, antzeko izenburukorik aurkitu arren, eduki berekorik ez baita ezagutzen. Horrezaz gain, ohiko samarra izan zen kalbindarren artean aurretik argitaratutako materialez baliatzea eta aurpegi berriko argitalpen osatuagoak kaleratzea.

Dena den, ezin pentsa daiteke Leizarraga zintzoak edozeinetatik hartuko zuenik bereetara garraiatzeko materiala, izan ere, eliza erreformatuak berehala atzeman zuen abezedarioak bezalako argitalpen xumeetatik sor zitekeen nahasmendu doktrinala³⁹.

³⁶ Ikus honako helbide honetan: <http://gallica.bnf.fr/ark:/12148/bpt6k52960t.r=calvin%2C+jean.langFR>.

³⁷ Bertsio elektronikoa: <http://klasikoak.armiarma.com/idazlanak/L/LeizarragaForma.htm>.

³⁸ Bertsio elektronikoa helbidea: <http://klasikoak.armiarma.com/idazlanak/L/LeizarragaAbc.htm>

³⁹ Haien baitako dotrina-galdeketak nahasgarri bezain heretiko suerta zitezkeela eta (halakotzat jo izan zen Vincent Brès-ek 1562an argitaratutako *Les demandes faites par les Ministres de l'Eglise de Genève aux enfans qui se presentet pour estre receus à la sainte Cene*), arreta

Gureari dagokionez, *Abc*ren **“Heuscal-Herrian gaztetassunaren iracasteco carguä dutenér eta goitico guciér, I. Leizarraga Berascoizcoac Iaincoaren gratia desiraten”** izeneko prologoa kenduta (Leizarragarena berarena baita: 1393-1395 or.), gainontzekoaz den bezainbatean, eklektiko samarra azaltzen da liburua, eta ez dirudi obra bakar baten itzulpena denik.

Ildo horretan, Leizarragaren *Abc*n dagoen **“Jesus Christ gure Iaunaren Cena saindua recebitu behar direnén interrogatzeco manerá”** (Leizarraga, 1419-1424) Kalbinen 1552ko *Catechismen* aurkitzen dugu frantsesez (“La maniere d’interroguer les enfans qu’on vont recevoir à la Cene de nostre Seigneur Iesus Christ”⁴⁰), baina pasarte gehienetan era desberdinez egituratua eta edukietan ere alde handiak daudelarik⁴¹. Alabaina, egia da aipatu *Catechisme* horren bukaeran solte antzera agertzen direla hainbat otoitz eta “interrogatzeko manera”, Leizarragaren *Abc* honetan tartekaturik ditugunak (ikus *Katexismeaz* esandakoa).

Bistan da, bestalde (eta honek eklektizismoaren hipotesia indartuko luke), *Abc*ren amaieran dagoen **“Christino batec iaquiteco dituen punctu principalen definitioneac eta descriptioneac”** izeneko txatalak (Leizarraga, 1425-1438) aparte argitara zitekeen koadernotxo baten egitura duela.

berezia jarri izan zen hasieratik. Calvinen adibidea ezin adierazgarriagoa da: 1553ko *La maniere d’interroguer les enfans* delakoa eraberritua –zehatzagoa eta, doktrinaren aldetik, argiagoa– kaleratu zuen gero 1562an. Brès-ena, esan beharrik ez dago, bahitua geratu zen hurrengo urtean (gehiagorako, Jostock 2007, 101hk).

⁴⁰ Ohar bekio, frantsesezko bertsioetan ez bezala, Leizarragak ez duela *“baurei* interrogatzeko manera” esaten. Galdeketa, halere, *Ministrea* eta *Haurraren* artean burutzen da.

⁴¹ Gorago adierazi bezala, 1562koa ere ez zen Leizarragaren erreferentzia izan. Nolanahi den, eta erkatze-lan sistematikoaren faltan, balirudike 1563-1564ra bitartean (eta, gehien-gehienik, 1568ra arte) bilatu beharko litzatekeela Leizarragaren erreferentzi liburua.

Kalendrerera

Jai mugikorrak, pazkoa, ilargi berria eta beste hainbat gauza noiz diren jakin ahal izateko egutegi protestantea, Hus eta Luteren heriotzen datak eta hainbat saindurena nabarmentzen dituen, baina ez, harrigarriro, Kalbinena (1564.05.27).

Leizarragak egindako ohar bereziren bat kenduta⁴², beste guztietan erlijio erreformatuaren ohiko egutegitzat hartu izan da ***Kalendrerera, Bazko noiz daten, Ilbargui berriaren eta letra Dominicalaren eçagutzeco manera-requin*** izenburuarekin argitaratutako hau⁴³.

Bada desberdintasun franko, halere, honako artikulua hau gehiago ez luzatzearren, beste baterako utzi beharko ditugunak.

3.– Aderazia dugu frantsesezko testuak dituela Leizarragak itzulpenen burutzapenerako iturri nagusi. Are gehiago, euskaratzeko orduan, eta testuen izaera larriak hala markatzen duelako, hizkuntza frantsesean moldatutakotik hurbil dabil egile euskalduna. Aitortzen duen bakana ere ildo horretatik doa. Ez du kasualitatez idazten, “guertha cedin” delakoaren erabile-ra justifikatzen duenean, honako hau: “minçatzeco manera hunez usatu ukan dugu, ez hala erraiten dugunean, ignorantac minço diraden beçala, venturazco edo tropuzco gauça dela erran nahi dugulakotz, baina lengoagean moldezcoago itzeuquiz, eta *Francesari iarreiquiz*” (Leizarraga, 1206). Nabarmena da *gerta zedin* horrek bideratzen duen kontaketa eraz gainera, frantsesezko testua bera dela erreferentzia. Sintaxia eta lexikoa lekuko.

Guztiarekin ere, bi itzulpen mota erakusten ditu, oro har, Leizarragaren obrak, haietako batek bere baitan itzulpen berezi

⁴² Buruïlaren 23ari dagokion oharra, esaterako, “Egun hunequin Testamentu berria Heuscaraz lehenic imprimitzen acabatu 1571”

⁴³ Bertsio elektronikoa: <http://klasikoak.armiarma.com/idazlanak/L/LeizarragaKalen.htm>

egiten duten ñabardura batzuk hartzen baditu ere, beherago erakutsiko den bezala.

Batetik, itzulpen zeharo hertsia, jatorrizko testuarekin erabat leiala eta inolako traiziorik onartzen ez duena. Itzulpen mota hau, azpimarratu beharrik ez da, lotuta dago kalbindarren printzipioekin, izan ere, ez baitzuten uste Jainkoaren hitza ukitua edota parafraseatua izan zitekeenik. Leizarragak berak airtortzen duen bezala, “haur bay erranen dut, ecen bethi orhoitic nola Iaincoaren manu expressa den haren hitzari deus edequi eztaquion ez eratchequi: hala eguin dudan fidelquiena eguin ukan dudala” (Leizarraga, 253). *Testamentu Berria* da itzulpen mota horren erakusgarria. Bertan itzultzaileak ez du askatasunik erabiltzen testuaren zentzuaren arabera itzultzeko; dena da hitzez hitzeko itzulpen⁴⁴.

Bigarren itzulpen mota, zerbait askeagoa, erlijio erreforma-tuaren testu kanonikoek eta dotrinaren hedapenerako katixi-

⁴⁴ Erantsi behar da, dena den, itzultzaile gisa baduela Leizarragak “askatasun-unerik”, jatorrizko testua zehazteko eta argitzeko baino ez bada ere, beti, baina, letrakera etzanez, “eçagun dençat ecen hec teztuan aditzen diraden hitzak içanagatic, ez tiradela ordea textu gorputz berecoac, baina declaragarri iarriac” (“Heuscalduney”). Pare bat adibide besterik ez dugu hona ekarriko. Lehenbizikoan testuaren alboan agertzen da “askatasun” horren arada. Euskarazko bertsio estuak naturaren aurkako omen diren pentsamenduetara eraman deza-keenez (“Eta Iacob-ec engendra ceçan Ioseph Mariaren senharra, ceinaganic iayo içan baita Iesus, cein erraiten baita Christ”, Mateo 1, 16), Leizarragak, zalantzak ezabatzeko, honako hau eransten du *in margine*: “*ceinaganic Mariaganic*”. Teologikoki ez hain gordina, bigarren adibideko testua inplizituki Betaniako Mariak izan omen zuen lanbidearekin lotua dago (oroit bedi, san Gregorio Magno elizburuaren arabera, pertsona bera zirela Betaniakoa eta Maria Magdale-*na*). Honela ematen du Leizarragak frantsesezko “ses cheveux”-en ordez “biloez” jarrita bakarrik jolas anfibologikoetarako atea zabalik utz zezakeen pasartea: “(Eta Maria haur cen Iauna unguentuz unctatu çuena, eta haren oinac bere *adatseco* biloez ichucatu cituena: ceinen anaye Lazaro baitzen eri)” (Joan 11, 2).

mek erakusten dute⁴⁵, *Abc* delarik guztien artean askatasun gehien hartzen utzi bide diona⁴⁶. Nolanahi ere, ozta-ozta uzten ditu Leizarragak *TBn* erabilitako euskaratze-irizpide estuak.

Bestalde, hizkerari gagozkiorik, bada zer esan ere.

Baldin egia bada Schuchardten baieztapena, ezen “la lengua de Leizarraga está para los actuales labortanos y bajonavarros por lo menos tan alejada como la lengua de Lutero para un alemán actual” (Schuchardt 1900: 1990, 8), nekez pentsa genezake hurbil suerta dakigukeenik haren lapurtera ehun urte beranduagoko euskaldunoi. Ordea, hainbat uruntasunez jabeturik ere, Leizarragaren hizkuntza proposamena hiruzpalau mende beranduagoko idazle zenbaitena baino hurbilago geratzen zaio egungo euskaldunari.

⁴⁵ Honela zuritu zuen beskoiztarrak bere hautua: “Eta minçatzeco maneraz den becembatean, Heuscal-herrian religionearen exercitioa den lekuco gendetara consideratione guehiago ukan dut, ecen ez bercetacoetara” (Leizarraga, 1394).

⁴⁶ *Abc*ren frantsesezko erreferentzia finkatzeko badago ere, orain arte erkatutako testuekin parekatu hainbat dibergentzia azal daitezke. Otoitzei erreparatu gero, esaterako, berehala atzemango da Kalbinen jatorrizko bertsiotan otoizlaria singularreko lehen pertsonan garatzen den arren (“qu’il ta pleu me faire la grace”, Leizarragarenean pluraleko lehenean burutzen dela (“gratia eguin draucuan beçala”, 1404-1405 or.). Bide berean, lexikoarekin ere ahalkerik gabe ausartzen da moldaketan esparrura. Hona orrialde bereko (1405 or.) bizpahiru adibide: “sur la terre” -> *mundu hunetan*; “pour me diriger en la droite voie de ta iustice” -> *hire iustotassuneco bidera guida gaitenceçat* (ohar bekio ez dela *zuzen* kalifikatiboa azaltzen), “cheminer en ta crainte” -> *hire beldurrean vicitzera*; “à la vie celeste” -> *vicitze eternalera*, etc. *Kt* delakoan ere askatasunez jokutzen du. Frantsesezko “car si nous, qui sommes mauvais, ne pouvons refuser à noz enfans le pain & la viande, quand ils nous la demandent, tant moins le fera nostre Pere celeste ...” pasartea, adibidez, honela ematen du Leizarragak: “ecen baldin guc, gaichto garelaric, ecin iraitz baditzaquegu gure haourrac gauça onen esquez daudenean: Cembatez gutiago iraitziren gaitu gu gure Iainco Aitac...” (1334 or.).

Horren arrazoia Leizarragak ehuntzen duen hizkuntz ko-dean letzake nagusiki, hartatik islatzen den luterarren gisako xede –erlatibo ba da ere– orokortzailean. Ia erabateko letra-antzutasuna erakusten zuen hizkuntzaren egoerari aurre eginenez⁴⁷, Leizarragaren erabakia aratz zegoen: “[...] lengoageaz den becembatean ahalic gehiena guciey adi eraciteari iarreiqui ičan gaitzaitza, eta ez choil edocein leku iaquineco lenhoage (sic) bereciri” (Leizarraga, 254).

Lapurteratztat identifikatua (hartara jotzen baitu funtsean), beskoiztarraren grafolektoak⁴⁸, labur esanda, ez du faltan behe-nafarrera eta zubereraren tasunik. Eta *TB*ren testuarekiko leialtasunak kultismoetarako bide –diogun– apurtzailea harrarazi bazion⁴⁹, euskararekiko leialtasunak hizkuntz arkaismoen ildo urratzera bulkatu zuen, aditzaren esparruan, batez ere. Hain zuzen ere, eta besterik kendu gabe, aoristoa, alokutiboa (hitanoa, batik bat) eta aditz trinkoa baitira Leizarragaren hizkera ongien bereizten duten ezaugarriak. Ildo horretan, egun harri-garri zaigun aoristoa da *TB* osoan gailentzen den narrazio-aditza (subjuntibozko formak, guk indikatibozko lehenaldian eman ohi ditugunak); Kontrarreformak sistematikoki deserrotu nahi izango zuen hitanoa da elkarriketetakako molde nagusia (hika mintzo dira Leizarragaren solaskideak, hala Jainkoarekin nola gurasoekin); eta aditz trinkoa da, azkenik, hainbat eta

⁴⁷ “[...] nic scribatu dudan lengoage motá baita, sterilenetic eta diversenetaric: eta oraino, translationetan behinçat, usatu gabea” (Leizarraga, 252).

⁴⁸ Schuchardt-ek ohartarazi legez, “Leizarraga fijó él mismo la lengua en la que escribió” (Schuchardt 1900: 1990, 9).

⁴⁹ Hein batean horrekin lotua, humanistena baina haratago doan greziera klasikoaren aldeko joera aurkitzen da urte haietako kalbindarren artean. Greziera ikasartzeko egiten ari zen ahaleginen fruitu dira, esate baterako, 1568an Th. Bèzek argitaratu zuen grekerazko gramatika eta urte bereko *A.B.C...* delakoan, Zena saildua errezibitu behar duten *haurrei interrogatzeko maneraren* amaieran greziar hizkuntzak erakusten duen presentzia: igandeko otoitzaren grekerazko bertsioa, letra greziarren izenak, etab.

hainbat forma galduren bidez (*zarreitzan, zeraunsten, eztera-karran...*) Leizarragaren prosa bitxiago bilakatzen duena.

Bat da, beraz, Leizarragaren kodea. Bat, berezia eta inguruko euskalkien gainetik aritzeko xedea duena⁵⁰.

Bestalde, grezierazko lexikoaz eta latinezkoaz landa, ez dira gutxi Leizarragak beste hizkuntzetatik (frantsesetik nagusiki, baina baita gaztelaniatik eta gaskoieratik ere) hartzen dituen hitzak, ez beti behar bezala ulertuak⁵¹.

⁵⁰ Askoz ere garrantzi gutxiagokoa, kode horrek badu, halere, egokitzapen modukorik hain larri ez diren idazlanetan, gorago erakutsi bezala. Teorikoki zuritua, bada, (“Minçatzeco maneraz den bezembatean, Heuscal-herrian religionearen exercitioa den lekuo jendetara consideratione gehiago ukan dut, ecen ez bercetacoetara, eta haur, sperañaz ecen Instructione hunec lehenic, eta orain behin guehienic, hetan cerbitzaturen duela” dio *Abc*ren hitzaurrean, 1394 or.), ez bide du urrunegira iristeko asmorik, ez baita *Abc* eta *Kalendrer*a bezalako lan xumeetatik igarotzen. Labur esanik, “Zuberoan eta aldirietan” (ikus Leizarraga, 1214) baliatzen omen zen forma batez ordeztzen dira datibo plural guztiak, hots, *-ei* beharrean, *-er* marka idatziz. Gainerakoetan (eta aski zatekeen deklinazio-marka partikular hori omen zerabilten hiztunen lexiko propioa, Leizarragak berak gorago esan den tokian emana, erabiltzea), ohiko lexikoa erabili zuen paradoxikoki. “Zuberoan eta aldirietan” egiten omen zen hizkera baliatu nahi izan balu (eta, zeharka behintzat, hori egin asmo zuela adierazten zuten *-er* datiboaren erabilerak lehen begiradan), gutxienez *TB* liburuaren amaierako “Zuberoako herrian usantzatan eztraden hitz bakoitz batzu hango antzora itzuliak” atalean zehaztu zuen lexiko diferentziala erabiliko zukeen, hau da, *Resuma* eta *zerua* beharrean (Leizarraga, 1398), *retatuia* eta *zeluia* erabiliz; *hurkoa* beharrean (Leizarraga, 1402) *proximoa*; *azpian* gabe, *pian*, etab. Alabaina, ez da horrela gertatzen.

⁵¹ Batzuk moldatu-egokituak, beste batzuk ez horrenbeste, beskoiztarren idazlanek jatorrizko testuekin erkatuak izatea eskatzen segitzen dute oraindik, itxuraz, bederen, lexikografiari probetxu nahikoa ekar bailiezaioke frantsesezko bertsioekin alderatzeak. Izan ere, aipatua dugu dagoeneko hitzen baten kasua, eta erraz asko aipa litezke hiztegi larrietan galdera-ikurrez horniturik dauden beste hainbat ere: *ireter eraci* faktitiboa, frantsesez “faire decider” eta ingelesez “to decide” aditzaren bidez emana dena, etc. *Crobitchet* (fr. “couvrefchef”)

4.– Leizarragaren obraren irakurketak arazo handiegirik sor ez dezan, komenigarria da kontu zenbaitez ohararaztea. Asmo gramatikalik gabe bada ere, hona hemen pasarte desberdinetan lasaiago barneratu ahal izateko garrantzitsuenak:

- Narrazioetan aditz nagusia subjuntibo eran aurkituz gero, ez kezka. Jakin ezazu egungo indikatibozko lehenalditzat har dezakezula delako *aoristo* zahar horren esanahia. Eta, horrela, *joan zedin, eror zekion, eriden zezan, erran zizen* bezalako formak *joan zen, erori zitzaion, eriden zuen* eta *erran zien* izango lirатеkeela egungo euskaldunontzat.
- *Gerta zedin* formularen ondoren *bait-* partikula daraman aditza etorriko zaigu beti, gertatu zena adierazteko: “Gerta zedin, bada, hil baitzedin paubrea eta eraman baitzedin Aingeruez Abrahamen bularrera”.
- Orainaldia zein lehenaldia erlatibo itxurako markarekin ez da beti erlatibozko esaldiaren aditza, egungo subjuntiboaren pareko baizik: *garen > izan gaitezen, goazen > joan gaitezen, dagigun > egin dezagun, garreizten > jarrai gatzaizkien*, etab.
- *Albait-/ albeit-* aginte adizkitzat har daitezke, eta aditzari lotuta agintera gisako bat adierazten dute: *albeitindoa > joan hadi, oroit albeitendi > oroitu hadi...*

bezalako hitzek ere aski argi jaso lezakete itzulpenaren jatorrizko bertsioak erabiliko balira. Ildo horretan frantsesezko *TBren* testuaren alboan honelako oharrak erantsi dira “couvrechef”-en karietara: “Les lüifs en leur sepulture enveloppent le chef d’un linge à part: qui est pour monstrier l’abus & fausseté du saint suaire, qu’on apelle” (Joan 11, 44) eta, aurrerago, “ou, suaire. En quoy on void l’abus & tromperie de ceux qui en ont voulu faire un linceul tout entier” (Joan 20, 7). Eta berdin esan genezake *algoaric* delakoari dagokionez (Leizarragak *Eta are baldin Ministreac algoaric badu* bezala ematen duenaren jatorrian honako hau idatzi zuen Kalbinek: “Et mesme, si le ministre a quelque chose” *La forme des prieres...*, 50 or.) eta beste hainbatez ere.

- *KE*-dun adizki trinko gehienak zaharkituztat ditugun arren (barka txantxa-punttua), etorkizun esanahia erakutsi ohi dute: *datorke* > *etorriko da*, *garate* > *izango gara*, etab.
- Gureztat erredundante samarra den arren, subjuntiboa (edo gureztat indikatiboa dirudien forma + *n*) + *tzat* ereduak helburuzko esaldia iragartzen du: *dentzat* > *izan dadin*, *dutentzat* > *izan dezaten*, *lemotentzat* > *eman liezaioten*, *etzatozentzat* > *etor ez daitezen*, etab.
- Ohi ez bezala agertzen da hainbat adizkiren aspektu-marka ezburutua: *batsen* > *hasten*, *bere(i)zi* > *beretzen*, *bazi* > *batzen*, *ikuzi* > *ikutzen*, *moztu* > *motzen*, etab.
- Egun iragankortzat ditugun aditz batzuk iragangaitz agertzen dira: *eska zaitezte* (“eska ezazue”-ren ordezt), *nahi baiz sendatu?* (“sendatu nahi duk?”-en ordezt), *barazkal zaitezte* (“bazkal ezazue”), etab.
- Besterik ematen duten arren (ez baitira bokalak bikoizturik agertzen), aditz batzuk hitanoaren paradigmari dagozkio: *igor dezan* > *igor dezaan*, *etzezala* > *etzezaala*, *dadukalarik* > *dadukaalarik*, etab.
- Gogoan har Leizarragak adizki perifrastiko zenbait bereizi gabe ematen dituela (*abantzadi*,...). Aldi berean, “ez” partikula ere normalean aditzari lotua ematen du, dagozkion aldaketa fonetikoak eginez: *eztut* > *ez dut*, *etzezaten* > *ez zezaten*, etab.
- Ez ahaztu Hegoaldeko euskalkietan aditz izenaren objektua absolutuan jartzen den bitartean, lapurterak genitiboa erabiltzen duela (“...Testamentu Berriaren euskarazko translazione *hun*en zure Majestateari dedikatuzera ausartu izan naizen...” gisakoak).
- Testuinguru zenbaitetan, instrumentala egungo ergatibotzat hartu beharko da: *Profetaz errana* > *Profetak errana*, etab.

- *Zeren guztiek ez dute esanahi berdina. Galdera bat irekitzen duenenean, zergatik esan nahi du.*
- Egun bitxi samarra egiten den egitura darabil Leizarragak maiz asko. Haren *Eta eman zekion abo gauza handiak eta blasfemioak pronuntziatzen zituena*, esate baterako, usuago aurkituko genuke honela: *Eta eman zekion (= zitzaiion) gauza handiak eta blasfemioak pronuntziatzen zituen aboa*. Berdintsu esan liteke ondoko honetaz ere: *ezen zure sujet kontuz eriden abal leiten baino gehiagoren aubenak eta suspirioak entzuten ditukezula > ezen kontuz eriden abal leiten baino sujet gehiagoren aubenak eta suspirioak entzuten ditukezula.*
- Lexikoari dagokionez, ohar bedi ezen hainbat hitz (oso gutxi, dena den) modu desberdinez itzultzen dituztela kalbindarrek eta katolikoek. Kalbindarren *sakrifikadorea*, esaterako, katolikoek *sazerdotea* da.

Bibliografia

- Calvin, J., 1552, *La forme des prieres Ecclesiastiques: avec la maniere d'administrer les Sacremens, & celebrer le mariage, & la visitation des malades*, l./g., arg./g. (Helbide elektronikoa honetan kontsulta daiteke orain: <http://gallica.bnf.fr/ark:/12148/bpt6k52960t.r=calvin%2C+jean.langFR>).
- Calvin, J., 1552, *Catechisme. C'est à dire, le formulaire d'instruire les enfans en la Chrestienté, faict en maniere de dialogue, ou le Ministre interrogué, & l'Enfant respond*, Geneva, Iehan Crespin (Orain helbide honetan: <http://gallica.bnf.fr/ark:/12148/bpt6k531151.pleinepage.r=calvin%2C+jean.f2.langFR>).
- Église Reformée de France, 1561, *Confession de foy, faite d'un commun accord par les François qui desirent vivre selon la pureté de l'Évangile de nostre Seigneur Iesus Christ*, l.g. (Orain helbide honetan: <http://gallica.bnf.fr/ark:/12148/bpt6k793530.image.f1.langFR>).

- Église Reformée de France, 1562, *Confession de foy, faite d'un commun accord par les François qui desirent vivre selon la pureté de l'Évangile de nostre Seigneur Jesus Christ*, l.g. (Orain helbide honeatan: <http://gallica.bnf.fr/ark:/12148/bpt6k114552j.image.f3.langFR>).
- Intxausti, J., 1995, "Leizarraga eta leizarragatarrak (1563-1571, Erreferoma-kontrarreformetako ilun-argitan)", *RIEV* XL, 119-160.
- Jostock, I., 2007, *La censure négociée: le contrôle du livre à Genève, 1560-1625*, Geneva.
- Les demandes faites par les Ministres de l'Église de Genève aux enfans qui se presentet pour estre receus à la sainte Cene*, 1562, Geneva, Vincent Brès.
- Lacombe, G., 1931, "De nouveau sur Liçarrague et ses collaborateurs", *RIEV* 22, 363-366.
- Lafon, R., 1943: 1980, *Le système du verbe basque au XVIeme siècle*, Donostia.
- Leizarraga, J., 1571, *Jesus Christ gure Iaunaren Testamentu Berria, ABC edo Christinoen Instructionea eta Kalendrerá*, Arroxela [orain in Th. Linschmann eta H. Schuchardt (ed.), 1900, *I. Leizarraga's Baskische Bücher von 1571 (Neues Testament, Kalender und Abc) im genauen Abdruck*, Strassburg (azken honen edizio faksimila: Bilbo, 1990)]. Obra guztien banakako bertsio elektronikoak ondo-ko helbide honetan aurki daitezke: <http://klasikoak.armiarma.com/alfa.htm#L>.
- Marot, C. eta Beze, Th., 1563, *Les Pseaumes mi sen rime françoise par Clement Marot & Theodore de Beze*, Iean Bonnefoy, l.g. (Orain honako helbide elektronikoan: <http://gallica.bnf.fr/ark:/12148/bpt6k1086792.r=.langFR>).
- La Bible, qui est toute la Sainte escriture du Vieil et Nouveau Testament, autrement l'ancienne et la nouvelle Alliance : le tout reveu et confere sur les textes hebrieux et grecs*, 1561, Lyon, Jean Tournes (Orain: <http://gallica.bnf.fr/ark:/12148/bpt6k53622p.image.f1.pagination.langFR>).

- La Bible qui est toute la Sainte Escriure: contenant le Vieil & le Nouveau Testament, Autrement la Vieille et la Nouvelle Alliance*, 1567, Geneva, François Perrin – Antoine Vincent (Orain ondoko helbide honetan: <http://gallica.bnf.fr/ark:/12148/bpt6k536231.image.f1.langFR#>).
- La Bible qui est toute la Sainte escriture contenant le vieil et le nouveau Testament, autrement la vieille et la nouvelle Alliance*, 1567, Geneva, François Estienne (Orain ondoko helbide honetan: <http://gallica.bnf.fr/ark:/12148/bpt6k53627d.image.langFR.f166.pagination>).
- La Sainte Bible contenant le Vieil et Nouveau Testamen: ou, la vieille & nouvelle Alliance*, 1566, Lyon, Pierre Michel – L. Clemensin (Orain helbide honetan: <http://gallica.bnf.fr/ark:/12148/bpt6k79025x.r=.langFR>).
- Le Nouveau Testament, c'est à dire, La nouvelle alliance de nostre Seigneur Iesus Christ. Reveu & corrigé de nouveau sur le Grec, par l'advis des Ministres de Geneve. Avec Annotations revés & augmentees par M. Augustin Marlorat*, Geneva, Iean Bonne-Foy, 1563 (Orain helbide honetan: <http://gallica.bnf.fr/ark:/12148/bpt6k108678p.r=calvin%2C+jean.langFR>).
- Olaizola, J. M., 1993, *Historia del protestantismo en el País Vasco. El Reino de Navarra en la encrucijada de su Historia*, Iruña.
- Peter, R., 1965, “L’abécédaire genevois ou catéchisme élémentaire de Calvin”, *Revue d’Histoire et de Philosophie Religieuses* 45-1, 11-45.
- Rodríguez Miñambres, P., 1995, “Leizarragaren <Regueri> gutuna. Azterketa erretorikoa”, *Enseiukarrean* 11, 217-243.
- Ruiz Arzalluz, I., 1991, “El modelo griego de Leizarraga: ¿una quimera filológica?”, in J.A. Lakarra (ed.): *Memoriae L. Mitxelena Magistri Sacrum*, ASJU, Gehigarriak XIV, 107-115.
- Salaberri, P., 2002, *Iraupena eta lekukotasuna. Euskal Literatura idatzia 1900 arte*, Donostia.
- Salaberri, P., 2008, “Inprentak mintzo direnean. Millangestarrak eta euskarazko liburuak”, *Karmel* 262, 95-107.

- Schuchardt, H, 1900, “Vorwort” eta “Üeber die Einrichtung des Neudrucks, insbesondere über die Druckfehler und Varianten bei Leizarraga” (orain: “Prólogo” eta “Sobre el modo de disponer la reimpresión, en particular las erratas y variantes en el texto de Leizarraga”, in Leizarraga 1990, 127-240).
- Soulié, M., 1980, “Littérature populaire et propagande de la Réforme”, *Bulletin de l'Association d'Étude sur l'Humanisme, la Réforme et la Renaissance* 11-2, 167-174.
- Vinson, J., 1891: 1984, *Bibliographie de la Langue Basque (Volumenes I y II)*, Donostia.
- Zulaika, E., 1998, *Ioanes Leizarragaren aditza*, Donostia.

Patxi Salaberri Muñoa